

PiNTO

EZABATUTA

6-7 urtekoentzako ipuiña



Felix Zubiaga

PINTO

1-2 mailletarako Irakurgaia

Argitarazlea: Ibaizabal
Irudigilea: Jesus A. Ruiz
I. S. B. N. 84 - 400 - 5392 - 4
Depósito legal: BI 2342 - 1978

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1.—Mendiatarren sendia	8
2.—Gorritxo mazustaren ipuiña	10
3.—Joanes aitaren betaurrekoak	12
4.—Betaurrekoen lillura	14
5.—Ordularia orpoetan	16
6.—Ikertxoren barrabaskeria	18
7.—Kontakatillu eta erbia	20
8.—Ikertxoren lokamesak	22
9.—Ikertxoren angeru jagolea	24
10.—Uriguen baserria	26
11.—Perla txakurra	28
12.—Katuaren promesak	30
13.—Asto Txikiren ibillerak	32
14.—Basagoitiko kanpaiak	34
15.—Pinto txakurra	36
16.—Zenbat dira Pintoren izpiak?	38
17.—Abereen alfabeta	40
18.—Jabiren matematikak	42
19.—Mirenen bitxi biotza	44
20.—Ama Birginaren nekeak	46
21.—Teleikuskiñaren ipuiñak	48
22.—Pintoren asarrea	50
23.—Pintoren leenengo erderakadak	52
24.—Iru txarritxoen ipuiña	54

26.—Baserriko Teleikuskiña	56
27.—Amumaren logurea	58
28.—Pintoren igesa	60
29.—Pintoren lorratzetan	62
30.—Jo ta ots	64
31.—Kilker landan	66
32.—Kilkerren mozkorra	68
33.—Kilker miña	70
34.—Gau lapurrak	72
35.—Iker kilker	74
36.—Kilkerren ogia	76
37.—Axerkoren buztana	78
38.—Amumaren egada	80
39.—Kanpaien illeta	82
40.—Pintoren mamuak	84
41.—Polonioren zirkua	86
42.—Pintoren agerpena	88
43.—Pintoren erdera	90
44.—Polonioren Txakurlandia	92
45.—Lindaren susmoak	94
46.—Polonioren igesa	96
47.—Polonioren koplak	98
48.—Polonioren marroa	100
49.—Ikertxoren bigarren barrabaskeria	102
50.—Teleikuskiñaren auzian	104
51.—Ikertxoren auzian	106
Ulerbidea sakontzeko galderak	109

Sarrera

Liburu au sei-zazpi urteko euskal umeentzat asmatu dogu.

Iñoren gaiak euskeratzen ibilli barik, gure umeen euskal mundua jaso dogu bertan, baserrian naiz kalean bizi oi dauen arazo eta auziekin.

Gaia osotzeko, beste liburu bat bearko leuke arean, eta joan ere, badoake, Jainkoa lagun, urrengo batean.

Formaz, bertsoetan batez ere, ba dauka alako kutsu zaar bat, baiña gaiez gaurkotasunez beterik dago. Irakurte bikotxa aurkituko dau irakurle azkarrak: azalekoa bata, umeen einerako, eta barrukoa bestea, irakurle oituarentzako.

Ulerbide argiago baterako, itz arruntak eta esaldi laburrak erabilli doguz geien bat.

Azkenean atalez-atal galdera batzuk doaz, umeen ulerbidea sakontzen laguntzeko.

Maisu-andereiñoak berera jo daikee argibide beretik, gure umeen irakurte totela laguntzen.

1.—Mendiatarren sendia

Ezagutzen dozue Mendiatarren sendia? Zoaze Uriko Barrenkalera eta antxe aurkituko dozue amabigarren atarian. Igon zurubian bigarren pisura eta jo atea. Idoia andreak urtengo dautzue.

Idoia da Jabiren, Mirenen eta Ikertxoren ama. Joanes, Jabiren, Mirenen eta Ikertxoren aita, ez dago etxean. Afaritarako etorriko da.

Barrenkalera bidea nondik den, ez badakizue, galde egiozue auzoko ertzañari:

—Non bizi dira Jabi, Miren eta Ikertxo?

—A! Mendiatarren umeak dira orreik. Ortxe, bigarren pisuan —esango dautzue ertzaiñak.

Izparringi saltzailleak, atezaiñak eta auzokoek ere «Mendiatar» izenez ezagutzen dau sendia. Zer dala eta Mendiatarrak? Joanes Aitaren abizanetik. Aita Joanes Mendia da eta ama Idoia Arane.

Jabi eta Miren barriz, Jabier Mendia Arane eta Miren Mendia Arane dira eskolako fitxeroetan. Ikertxo ez dabil eskolara eta agaitik Ikertxo da beste barik.

Ikertxok bere urteak kontatzen daki doi-doi eta barra-bazkeriren bat egiten.

Jabi eta Miren nebarrebak dira, mutiko eta neskato direnez. Jabi eta Ikertxo anaiak dira, mutillak direlako. Mirenek bere antzeko neskato bat eskatzen dautso amari. Aiztatxo bat euki gura dau, Jabi eta Iker baiño gitxiago ez izatearren.



Ikusi zer egiten dagoen Jabi. Liburu andi bat irakurten dago. Eskolako esku liburu bat. Mirenek letra andidun ipuin liburua dauko eskuetan. Iker, Mirenen ondoan, aren liburuko santuei begira dago.

Mirenek Ikertxori irakurten irakasten dautso: «m-a: ma, z-u-s: zus, t-a: ta...»

Miren «Gorritxo mazustearen ipuiña» irakurten dago.



2.— Gorritxo mazustearen ipuiña

Ikertxok ez daki irakurten. Agaitik Mirenek zoli aozkatzen dautso Ikertxori. Orrela, begiz ulertu ezin dauena, belarriz ulertzen dau.

—Ulertzen dozu? —galdetzen dautso Mirenek Ikertxori.

—Bai, bai —diñotso barrezka Ikertxok Mireni.

Ulertzen ete dauz gero Ikertxok Mazusten ipuiñak? Miren bera ere, ipuiña irakurri eta gero, pentsakor gelditu da. «Zelan izan leiteken Mazustarena» gogoratzten dago.

«Bein Mazustegin danetariko mazustak bizi ziran: berdeak, gorriak eta baltzak.

Danak ziran larraren alaba kutunak eta Eguzki maisuaren eskolara joaten ziran egunero.

Mazustegiko umeak asko ziran eta, ille beteko leziñoak artzen euezen. Eguzki maisua bera zan noizbeinka sasieskola egiten euana. Orduan ez egon eskolarik. Mazustak iru maillatan banatzen ziran: leenengo maillan berdeak, bigarren maillan gorriak, irugarren maillan gorriak, irugarren maillan baltzak.

Illeko asteak onela banatzen ziran:

leenengo aste biak berdeen maillarako, irugarren eta laugarren asteak gorrien maillarako eta azkeneko astea baltzen maillarako.

Maillak igaro ondoren azterketa etortzen zan eta gero, onenean, oporrak. Orduan bai zoriona!



Gorritxo, mazustea, bigarren maillan ebillen. Oporrak aurreratzeko griñaz, irugarren maillan sartu zan, ordua baiño leen.


Ba joan azterketara eta Eguzki maisuak galdetu eutsen:

—Nor da goizean berde, eguerdian gorri eta arratsaldean baltza izaten dana?

Gorritxo mazusteak ez ekian nor zan umetan berde, mutilletan gorri eta anditan baltz. Eldu barik egon eta.

Eguzki maisuak atzeratuen eskolara bialdu euan suspenso andi batekin.

«Eta alan bazan, sartu daitela kalabazan.»



3.—Joanes aitaren betaurrekoak

Joanes aita, lanetik datorrenean, ama Idoia atea idegiten joaten da. Jabik, Mirenek eta Ikertxok mosu bana emoten dautsoe aitari. Aita Joanesek, besarkatu eta aidean jasotzen dauz, eskaratzeko bonbillaren parreraiño.

Gero aita Joanes pipea iziotu, betaurrekoak jarri eta izparringia irakuten asten da.

Jabik bere lanetan jarraitzen dau, Ikertxok bere olgetetan. Miren ostera aitaren ondoan gelditu da. Izparringiaren ostetik ango izki txikiak irakurri gura dauz. —Aita, zer diño izparringiak? —galdetzen dau Mirenek.

—Ipuiñak, ipuiñak, laztana —erantzun dautso aitak, begirik jaso barik. — Baiña ezin daikezuz ulertu...

Jabik bere bazterretik Mireni izekaz begiratzen dautso. —Ik ez dakin izparringia irakurten eta-esan dautso.


—Baietz aitaren betaurrekoekin irakurri! —asarrez erantzun dautso Mirenek Jabiri.



Jabik eta Mirenek eztabaidan, aita Joanesen izparringia mugitzen daue.

—Ez betaurreko eta ez izparringi! Zagoze geldi, umeok! —agirika egin dautse aita Joanesek.

Izparringiko ipuiñak umeentzako ez direla, esan dautse.



4.—Betaurrekoen lillura

«Zelangoak ete dira izparringiko ipuiñak?» Miren jakin miñez erreten dago. Eskolatik etorri eta komodora doa beingoan. Antxe egoten ziran aita Joanesen betaurrekoak eta izparringia.



Miren izparringia artu eta besaulkian jezarri da. Betaurrekoak atera eta sudur gaiñean ipiñi dauz. Izparringia irakurten asi da.

—Ai ene! Zer da au? —deadar egin dau Mirenek.

Izparringiaren izki batzuk itzelezko pustu eta sudurre-raino etorten yakoz. Beste izki batzuk odeitaraino iges egiten dautsoe. Goiko lerroak beeko lerroen gaiñera jausten dira eta beeko lerroak itsasoko olatuak legoz apurtzen...

Deadarka eta lillurak arturik Mirenek, buruari eragiten dautso, alako uretatik atera gurarik. Besaulkian jausi da mareaturik.

—Zertan abil, kokola andi ori? — Idoia amak agirika egin dautso Mireni eta aitaren betaurrekoak kendu egin dautsoz.

Mirenek lilluratik burua aske ikusi dau, baiña Jabi etorri jako orduan:

—Ikusten don? Izparringia irakurten ez dakin eta. Nik bai, nik badakit...

Mirenek jaramonik ere ez dautso egin Jabiri.



5.—Ordularia orpoetan

Jabi eta Mirenek lo baten igaro daue gau osoa. Goi-zean Idoia amaren txaloak entzun dauez.

—Aaa! —aoa zabalik arrauzika asi dira Jabi eta Miren, gaiñeko estalkiak kendu eziñik.

—Ale, gora! Eskolarako ordua da eta! —deiadar egin dautse Idoia amak eta estalkiak kendu.

Gozari beroa tripan eta liburu fardela sorbaldan, mugidu dira Jabi eta Miren.

—Beandu ibilli barik, ordulariak ez dau parkatzen eta —ama Idoiak oarpenez ateraiño lagundu dautse.

Kalera orduko, Jabik eskuturreko ordulariari begiratu dautso. Belarrira urreratu dau, ondo ete dabillen. Idoia amak ordularia erosi dautso Jabiri, beraren eta Mirenen ardura euki dagian.

Ordulariak «tik-tak, tik-tak» egiten dau Jabiren belarrietan.

Ordulariaren kontrapasa

«Ordularia
ordu batetan,
bazkal ordua atetan.

Dingi-dan
dingi-dan.

Ordularia
ordubietan,
amak platera betetan.

Zopak jan,
zopak jan.



Ordularia
ia iruretan,
ikastolara bidetan.

Traka-tan,
traka-tan.

Ordularia
bostak orduan,
liburuakin burrukan.

Lan ta lan,
lan ta lan.

Ordularia
seirak jotean,
lana amaitzen klasean.

Olegetan!
Olgetan!»



6.—Ikertxoren barrabaskeria

Bazkal ordua da Mendiatarrenean. Laster datoz eskolatik Jabi eta Miren, laster dator lantokitik Joanes aita. Gose galanta ekarriko daue.

Idoia ama arazoturik dabil sukaldean, bazkaria presatzen. Lapikoa irakiten dago butanozko sutegian. Sagarrak labean erretzen daukaz. Ama Idoia patatak zuritzen dago arrian.

Ikertxo iru gurpilleko zikloan larregiak egin eta amari deika dago:

—Ama, Kas! Kas!

—Kaskarreko bat artuko dozu, ume! Leen ere naiko Kas artu dozu eta! —isilik egoteko diñotso Idoia amak Ikertxori.

Ur gozoa larregi gustatzen jako Ikertxori eta Idoia amak badaki kalte egiten dautsola. Gero tripalakin egoten da Ikertxo. Kas larregi edan eta...

Idoia ama patatan zuritan, arrira begira dagoela, Ikertxok eskuak jasoten dauz baldera. Kas botellea doidoi ikutzen dau. Oratu ez oratu, botelleari bultz egiten dautso eta punbala lurrera jausi da. Apurtu egin da.



Idoia amak eskuak jaso dauz, Ikertxok eskutxoak ar-
pegira daroaz. Negar eta negar dagi arrantza baten.

—Ai amatxu!

—Esan dot nik, umea! Leen ere naiko Kas edon do-
zula! —agirika baten Idoia amak kristal zatiak batzen
dauz.

—Ai amatxuuu! — Ikertxok negar luzeetan darraí.

—Ai, ume onekin! Eskolara bialduko zaitut! Bakea or-
duan!

Mendiatarren sendiko danak bazkaltzen asi direnean,
Jabik eta Mirenek galde egin daue:

—Ama, non daukazu gure Kasa?



7.—Kontakatillu eta erbia

Mirenek Leire bere laguntzua topau dau eskolara bidean. Alkarri kontukontari, txutxu-putxu asi dira bidean eta ez daue amaitu ikasgelara eldu direnean ere.

Andereiñoa Mireni eta Leireri begira egon da une batez. «Noiz isilduko ete dira» itxaroten egon da andereiñoa.

Leirek liburua aoaren pareiraiño jasoten dau bere andana botateko. Miren agertzen da pekatari; ezpanak mugitzen ikusten jakoz.

—Noiz isildu bear don, Miren kontakatillu? —agirika egin dautso andereiñoak.

Miren lotsaren-lotsaz gorri-gorri egin da. Esku batatz ezpain biari oratu dautse, isilik egon daitezana.

Jabi laugarren maillakoekin dabil irakurketa saioa egingen. Laster eldu jako Jabiri bere txandea. Irakurten ondo dakiala, adierazteko, Jabik arrapaladan irakurten dau: «Babilotsatxoaskuetanartuetaamumarenerajoandagoizetik...»



—Astiro, Jabi! Astiro! —galgea bota dautso andereñoak Jabiri eta erbiarena ez egiteko esan dautso:

«Arin-arin eiten dau
soloan erbiek,
utsak egiten ditu
punturik erdiek»

Asko kosta izan jako Jabiri, ondo irakurteko, astiro irakur bear dala uler-tzea: «Babi, boltzatxo eskuetan artu eta amu-marenera joan da goi-zetik...»

—Orrela! —txalotu dau Jabi andereñoak.—Itz bakoitxari eta esaldi bakoitxari emon bere esangurea.



8.—Ikertxoren lokamesak

Ikertxo, Kas larregi edan eta zopa beroak jan eta oeratu zan bart. Oeratu zanean, Kasaren txindurriak tripatik eta zopa beroen lurrenak burutik igoten asi jakozan.

Ikertxoren zerua aozpez iduli zan. Izarrak beeko lei-zera jausi ziran eta Ikertxo bera aidean ebillen. Oetik aske, estalkietatik aske, egaz. Egorik ez eta egaz, jausi-jasika eta punbalarik ez.

Illun egon eta izarrak gero eta urrunago eta txikiago. Leize baltzak tiratzen dautso Ikertxori eta ez dauka



zeri eldurik. Asieran jolasa emoten euan, orain ikara emoten dautso.

Noiz amaitu bear euan alako jauziak? Eta beean ots egikeran, oeko moilleak artzen ez badaue gaiñean? Gero leize zulo aretatik urten ezin badau?

Ikertxo estutzen asi zan. Amari deiadar egin gura eutso eta estarria itzita eukan. Ezin zaratarik egin.

Estualdi larri aretan, askatzeko indarrak egin euazan Ikertxok, eta oetik jausi zan.

—Amaa! Amatxu! —arrantza jo euan orduan gogotik.

—Zer jaso ete jako gure Ikertxori —esaten euan Idoia amak, gau erdian oetik jagi zanean.



9.—Ikertxoren Angeru jagolea

Idoia ama oetik jagi eta Ikertxoren gelara joan zan bart arin baten. Ikertxo, txorikumea, abitik jausita ikusi euan. Ai, azeritxu batek ostuteko ere!

—Jesus laztana! Zer gertatzen jako gure umeari?
—esan euan Idoia amak.

Ikertxo lurretik jaso eta oean sartu euan Idoia amak barriro. Mosuka isiltzen euan Ikertxoren negarra eta Angeru jagoleari dei egin eutson, Ikertxoren amesetako mamuak uxatu egizan:

Angeru jagolearen otoitza

«Angeru jagole,
umeen lagune,
Jaunaren bialdu
zara zu.

Aingeru zaindari,
gorde nagizu ni
zure egopean
bakean.

Zeruko aingeru,
orrako bide zu,
arerioetatik gu
zaindu.»

Gaur ere Idoia amak
Angeru jagolearen
otoitzak esan dautsoz
belarrira Ikertxori, ames
gaiztoak oetik beera
jaurti ez dagian.



Jabiren eta Mirenen gaueko otoitzak ere begitu dauz Idoia amak.

—Egin dozuez zeuon otoitzak? —mosu bana emon dautse amak, otoitza amaitu dauenean.

Jabik eta Mirenek alfonbra gaiñean belaukiko egiten daue euren otoitza:

«Gabon, Jauna, eta eskarrrik asko, igaro dogu eguna.

Orain bere zugana gatoz eskatzen laguntasuna.

Ez dagigula guk ameseta txarrrik egin gau onetan eta bildur barik zure bakean egon gaitzela lotan.»




10.—Uriguen baserria

Astea polito baiña neketsu joan da Barrenkalen. Jabik eta Mirenek amaikatxo bidarrez ibilli dauez bide bardiñak, eroan eta ekarri liburu bardiñak, zenbatu ordu bardiñak etxetik eskolarakoan eta eskolatik etxera-koan.

—Ondo portaten bazaree, «Amumanera» joango za-ree —lanera bizkortzen dauz Idoia amak Jabi eta Miren.


Asteburuko saririk andiena «Amumanera» joatea zan. Ez esirik, ez ordurik, ez eskola lanik. Aixe askatasuna! Etxe guztia libre, landa guztiak jolastoki eta gaez, amumaren ipuiñak.





Amumanean jaió zan Idoia ama. Beraz Jabiren, Mirenen et Ikertxoren amuma Idoia amaren ama da. Baserriaren izena Uriguen da eta baserriko beste etxeetan gorená da. Menditxo baten gaiñean dago.

Zapatu goizean Jabik eta Mirenek ez daue euki nagirik oetik jagiteko. Ikertxok negar batzuk egin dauz, arpegian ur otsa sentitzean. Idoia amak «Amumanera goaz» esan dautso eta isildu egin da Ikertxo.



Joanes aitak artu dau fardelik aztunena eta goizeko trenera joan dira. Geltokiko morroiak «píii» txistua jo dau eta trenak «puuu» ozen erantzun dautso. Trakatraka asi danean, Ikertxok txaloz bardindu dau zati baten trenaren abiada. Barrenkale eta Uria urrun gelditu dira laster oletako keen azpian.

Jabi Amumanerako zubiak eta tunelak kontatzen joan da bidean eta Miren leioko kristalean sudurrak josirik. Eguzkia gero eta argitsuago, landak gero eta berdeago eta loreak gero eta ikusgarriago emoten daue, Amumanera urreratzean.

11.—Perla txakurra

Trena itzi eta ogei minutuko bidea egiten dau Mendiatarrak Uriguenera bidean. Joanes aitak geltokian bertan itzi dau maleta aztuna. Asto Txiki etorriko da gero maletea eroateko.

Jabi aurreratzen da beti aldapan gora. Perla txakurrari leenen egin gura dautso agur. Baiña Perla txakurra ez da agertzen bestetan legez, buztanari eraginka eta ondoetorria emoten.

—Zer jasoten jako Perlari? —galdetu dautso Jabik lñaki leengusuari.


lñaki lengusuak sekreto andiz eroan dauz Jabi eta Miren mandioko bazterrera.

—Orra. Kumeak egin dauz; lau kume —erakusten dautsez lñaki lengusuak.

Txakur kumeak alauri gozoz txakur amearen errapean izkututzen dira. Bata gorrizkea da, bestea zuria, irugarrena nabarra eta laugarrena mota balzduna. Perla txakur amek kumeen ardura andia dauka. Magalean gorde gura dauz.

—Axe, izpi balzak daukozena —aukeratu dau Mirenek.

lñaki aurreratu, txakur izpiduna artu eta eskuetan ipiñi dautso Mireni.



—Ai ze polita dan! —zoratu da Miren, mosuak emon dautsoz.

Txakur kumeak begiak erdi iriki daukaz. Jabik atzamar txikia sartu dautso aoan. Txakur kumea atzamarra zurrupaka asi jako.

Perla txakurra, dar-dar bildurrez, Jabik eta Mirenek ze asmo dakarren begira dogo.

—Aita, izpidun txakurtxua eroan bear dogu etxera
—esan dautso bazkal ostean Mirenek Joanes aitari.
—Eskatu egion ori osaba Pedrori —erantzun dautso aitak.

Osaba Pedrok baietz erantzun dautso, baiña txakur amearen titia izten euanean, eroango euala.



12.—Katuaren promesak

«Bein katua begietako miñaz egon —Amuma ipuiña kontatzen asi da afal ostean— eta Santa Luziara joateko promesa egin euan.

Bidean ibilli eta ibilli akerragaz topatu euan. Akerra larrean egon, laiari loturik, oso triste.

—Zer jasoten jak orren triste egoteko? —esan eutson katuak akerrari.

—Biar nausiak plazan salduko nau eta nire azkena dok —erantzun eutson akerrak.

—Ator neugaz Santa Luziara; emoiok topekada bat laia orri! —esan eutson katuak.



Akerrak topekada bat emon eutson laiari eta loka-loka itzi euan. Katuak erpekada bat emon eutson laiari eta atera egin euan.

Orduan ba joazan biak, katua eta akerra, aurrera ibilli eta ibilli. Illuntzean bakartadean etxe bat topau euen.

Etxea apurtuta egon, ez ate, ez teio eta ez teillatu. Katua aurreratu zan eta zirrikitu batetik begitu euan.

—Oi ene! Otsoz beterik jagok! —esan euan katuak isil-isilik.

Geiago barik, katua salto batez goiko agera igon zan.

—Ta nik zer egingo joat? —larritu zan akerra.

—Igon egik orma zaar orren gaiñera —esan eutson katuak.

Akerra orma zaar gaiñera igon zan. Andik otsoen lo zurrunga entzuten zan.

Gau erdian akerra txisa larritu egin zan.

—Txo, larri nauk! —esan euan akerrak.

—Ankaz gora etzun adi eta uleak artuko deuk —erantzun eutson katuak.


Akerra ankaz gora jarten egoela, bira osoa emon eta otso artera jausi zan. Otsoak, azken juizioa etorrelakoan, danak arrapaldan igeska asi ziran. Buztan motx bat gelditzen zan atzetik eta katuak:

—Buztan motxari!

Buztan motxari!

—deadarrez oldar-
tzen euan akerra.


Goizaldean, ezeren arrisku barik, aurrera jarraitu eutsoen bideari katuak eta Akerrak Santa Lu-ziara arte.



13.—Asto Txikiren ibillerak

Asto Txiki berandu etorri da plazatik. Otzaretan esne kantxin utsak eta dendako erosketak dakarz. Mari izekoa asto gaiñean dator eta barre egin dau Uriko lobatxoak ikustean. Ba dakarz, ba dakarz bere saritxoak. Ez dauz aaztu.

Ikertxok asto Txikiren gaiñean ibilli gura izan dau, baiña asto Txikik lan asko dauka zapatu arratsaldean. Leenengo geltokira joan bear izan dau maleta aztuna ekarten. Gero belardira joan bear izan dau kortako beientzat bedarrak iragoten.



Asto Txikik erosta barik egiten dauz esanak. Astiro eta abiada bardiñaz, baiña ziur, ibilten da beti. Oraingo berebillak ez daue ikusi gura bidean, geldiro ibilten dalako. Uriko ertzaiñak ez daue ikusi gura kalean, bazterrak zikintzen dauzelako. Bedar asko jan bear izaten dau eta...

Asto Txikik ba daukoz bere meritoak eta bere koplak.

Asto Txikiren koplak

«Astotxu trikiti
plazara doa.
Otzaretan zertxo
ete daroa?»


Astotxuk trikiti bonbon,
esnearen truke
artuko txanpon.

Astotxuk trikiti,
mamin kolore,
danetik daroa
sagar ta lore.

Astotxok trikiti bonbon,
esnearen truke
artuko txanpon.

Astotxok trikiti
daroa franko
esnea, arrautsak
eta oillasko.

Astotxuk trikiti bonbon,
esnearen truke
artuko txanpon.»



14.—Basagotiko kanpaiak

Domeka goizean lore txorta bat egin dau baratzean izeko Marik. Ama Idoiak jaietako jantzia ipiñi dautso lkertxori eta danak eleizarantz abiatu dira.

Amumak gona baltz luzeak daroaz. Mari izekoa eta ama Idoia naiko antzera jazten dira. Jabik eta Iñaki lengusuak ere niki beillegi bardiña daroe. Mirenek gona loreztuak.

Ikertxo eskutik daroe izeko Mari eta ama Idoiaren artean. Iñaki lengusua Mirenegaz konpontzen da. Joanes aita eta Jabi amumagaz etorri dira zati baten. Gero amuma Uribeko Kataliñegaz alkartu da bidean.



Pedro osabea eta Jone lengusiña goizeko mezara joan dira. Joze lengusiñak bazkaria aurreratu bear dau eta Pedro osabak ganadujatekoak.

Parrokiako kanpai nausia joten asi orduan.

—Izeko, zer diño Basagoitiko kanpaiak? —esan dautso barrezka Mirenek izeko Mariri.

—«Badau jan! Badau jan!» esaten gon —erantzun dautso izeko Marik.

Basagoitiko eleizak torre laukitua dauka. Bi aldetara kanpai bana bata andia, bestea txikia. Aurreko aldean erlojua dauka. Kanpae biak iraulika joten daue. Kanpae txikia joten asten denean, «nik jan yoat ta euk jaik» eratzuten ei dautso kanpae nausiari.

Leenago baten Basagoitiko kanpaiak Basabeitikoekin barriketa luzeak eukiten ei euezan jai bezpera eta jaietan.

Erriak ondo abestu dau. Jabik eta Mirenek ere abestu daue. Urian bertan, euskal mezan, abestu oi diren kanpuak izan dira geienak. Besteak ama Idoiak irakatsiak.

Amumak eta Uribeko Kataliñek mantelin baltza ezarri daue burutik eleizan sartzeko. Iñaki abadeari mezea erasoteko aurreratu da. Eleizan atzeko aulkiak utsik dagoz. Basagoitiko jende asko kalera joan ei da biziten.

Ama Idoiak kaleko lagun batzuri agur egin dautse meza ostean. Eurak legez, baserriari agur egitera etorriak izan dira.

Ama Idoiak eurekaz berbaz jardun dau luzaroan. Eta euskeraz atan ere, eta ez erderaz beste kaletarrekin legez.



15.—Pinto txakurtxoa

Alakoan baten izeko Mari eta osaba Pedro argitu dira Barenkalen. Izeko Marik kereiza elduak dakar eta osaba Pedrok izpidun txakurtxoa dakar otzaratxo baten.

—Oi! Zenbat azi dan! —pozjarioz artu dau Mirenek eskuetan, leen baiño ederrago eristen dautso.

Txakurtxoa beean itzi eta Miren beraren oiñetara dator txapa-txapa. Plateretik esnea edaten emon dautso. Urdaila bete-bete egin dau txakurtxuak. Gero barrero joan da Mirenen oiñetara. Lagun egin jako beingoan.

Gauetz kartoizko kutxa baten itzi daue sukaldean bertan lo egiten. Itzartu da txakurtxoa eta «ui-ui-ui-uiii» alauri batez asi da Perla amari deika.

—Gaisoa! —esan dau Idoiak, itzartu danean.

—Obe leiotik jaurtiko bazendue! —loa galdu dau Joanesek.

Urrengo gauean Mirenek ez dau itzi bakarrik txakurtxua. Gaueko txakurtxuaren negarrak kontatu dautsoez. Bere gelara eroan dau eta ui-uika asi danean, Mirenek esku bat bota dautso oetik.

—Isilik, Pintotxu, emen nago eta —esan dautso Mirenek.



Txakurtxua isildu egin da, Mirenen eskua lepo gainean sentidu dauenean.

Laster etxeko egin da txakurtxua eta zati bat Mirene-na, beste bat Jabirena eta zatitxo bat Ikertxorena egi-ten da.

—Ze izen ipiñiko dautsogu? —esan dau Jabik.

—Pinto izango da —erabagi dau Mirenek, eta ondo eritsi dautsoe.

Danak artu gura daue eskuetan Pinto txakurra.

—Etorri ona, Pintotxu! Zu neurea zara eta. — Mirenek mosuak emoten dautsoz.

Ama Idoiak txakurrari mosurik ez emoteko agindu dau-tso Mireni, gaisoren bat etorri ez dakion.



16.—Zenbat dira Pintoren izpitxoak

Arratsaldean, azkaria jan eta gero, Jabi eskola lanak egiten asi da. Miren Pintoren ulea orrazten dago. Pintoren izpi baltzuneak biribil-biribil gelditu dira. Miren Pintoren izpitxoak kontatzen asi da. Lenengo bizkar gaiñekoak, gero sabelpekoak. Sabelpeko izpiak kontatzeko, Pinto ankaz gora ipiñi dau Mirenek.

—Zertan abil, eure lanak egin barik? —agirika egin dautso ama Idoiak Mireni.



Ikertxok Pintogaz jolasteko eskatu dautso Mireni. Mirenek belarrira isilleko bat esan dautso Ikertxori, Jabik entzun ez dagian.

Jabi leziñoa artzen asi da orduan:

—Ba dakizue zenbat diren Españaiko ibaiak?

—Ez ba... —erantzun dautsoe Mirenek eta Ikertxok

—Ba dakizue eguzkiak zerbat izar lagun darabizan inguruan? —galdetzen dautse Jabik.

—Ez ba... —erantzuten dautsoe Miren eta Ikertxok.

—Zuek ez dakizue abedean zenbat izki dagozen ere —arrotzen da Jabi.

—Zeuk ere ez dakizu guk dakigun gauzatxo bat —jardesten dautso Mirenek Jabiri.

—Zer gero?

—Zenbat izpi baltz daukaz Pintok narruan? Ezetz jakin?

—Ez ba; ez dakit —apaldu da Jabi.

—Ja-jai! Guk badakigu! —barre egin dautsoe Mirenek eta Ikertxok Jabiri.

Isillekoa batak besteari belarrira esaten jarraitu daue.



17.—Abereen abedea

Udabarria zoragarria da Amumanean. Urigueneko sarrak loretan dagoz. Sagardia Uriko zumardia eta loretegia baiño ederrago dago.

Osaba Pedrok kortako beiak askatu dauz. Eguzkia arzen larrera daroaz. Perla txakurrak bere kumatxoekin jolas egiten dau. Pinto ere ama Perlari agur egiten etorri da. Bere ausi eta alauri txikiatz, kalean ondo bizi dala, esan dautso Perla amari.

Jabi eta Iñaki osaba Pedrorekin joan dira larrera. Miren bildostxoaren lagun egin da eta Ikertxok txitaxoekin jolas egin gura dau. Ikara galanta artu dau Ikertxok, «ko-ko-ko» oillo lokea, luma arrotu, etorri jakonean.

—Erpeka egingo dautzu, laztana! —deadar egin dautso Idoia amak.

—Ko-ko! —arri ta zur gelditu da Ikertxo.



Oilloak txitatxoari ez ikutzeko, esan dautsola, konturatu da. Eta zer diñoe beiak marroziatz, txakurrak auziaz, katuak miauaz eta astotxoak arrantaaz?

«Astotoxak “a”
arkumeak “be”,
alfabeta guztia
ikasi daue.

Txakurtxoak “au”,
katutxoak “miau”,
alfabeta guztia
nork ikasi dau?

Oillo lokak “ko”,
txitatxoak “pi”,
alfabeta guztia
daue ikasi.


Zezenkoak “mu”
eta beiak “ma”
alfabeta guztia
ia amaitu da.»



18.—Jabiren matematikak

Domekan Joanes aitaren urtebetetzea da eta Idoia amak etxekoentzat pastelak erosi dauz, jaia ospatzeko.

Bazkal ostean Idoia amak maaira atera dauz pastelak.



Jabi Miren eta Ikertxo pozaren-pozez txaloka asi dira. Miren pastelak kontatzen asi da: «bat, bi, iru, lau, bost.»

—Ama gu bost gara eta zuk bost pastel erosi dozuz. Bakoitzari bana tokaten jaku.

—Bai eta biña ere! —aurre emon dautso Jabik Mireni; bere matematiken leziño bat erakutsi gura dautso...

—Zelan pastel biña, Jabi? —galetzen dautso Joanes aitak?

—Begitu: bost dagozen tokian lau ere ba dagoz, ez ala?

—Bai.

—Orra ba, bost eta lau: bederatzi. Bakoitzari biña pastel, bateri izan ezik.

—Ederto, ederto, Jabi —keiñu egin dau Joanes aitak.

Orduan Joanes aitak pastel bi artzen dauz bere plate-rean. Ama Idoiak pastel bana banatzen dautsoe Mireni, Ikertxori eta berari.

—Eta niri, ama? —berea eskatzen dau Jabi.

—Iretzat beste laurak —erantzun dautso Idoia amak.

—Ai, ez ama! Matematiken guzurra izan da —aitortzen dau Jabik.

—Bost ala bederatzi dozak, Jabi? —Joanes aitak pastel erdia aon dauka, beste pastela ikutu barik plate-rean.

—Bost dira, aita.

—Tira! Orain lau eta erdi. Erdia jan joat. Baiña, egia esan dokalako, eutsok eure pastela.

Danak ospatu daue pastelez aitare urtebetetzea.

19.—Mirenen biotz bitxia

Biotzaren antzeko edergaillua emon dautsoe Mireni eskolan. Edergaillua plastikozkoa da, larrosa kolorezkoa. Mirenek idunetik dindilizka daroa.

—Nor emon dautzu, laztana, bitxi ori? —galdetu dautso ama Idoiak etxean.

—Ané neure eskola lagunak; berak ere beste aulako bat daroa —erantzun dautso Mirenek amari.

Jabi aurreratu eta eskuan artu dau Mirenen biotz bitxia. Amari begira alako ziñuak egin dauz.

—Ba, ba! Biotza, maitasuna: nesken arrokeriak!
—esan dau Jabik.

Mirenek orpoetan bira egin eta berbarik ere ez dau esan. Jabirekin asarratu egin da. Mirenek orain mai-teago dau lkertxo.

Bere biotz bitxia dala eta, Mirenen gauza arrigarri batez konturatu da egunotan.

—Ama, badakizu zure gelako irudiak ezpata bat daukala biotzean? Nireak ez dauka esan dautso Mirenek ama Idoiari.

—Zure biotza potintxo bat dalako, laztana, baiña zeruko Amak, asko artu bear izan euan...



Idoia amak ezpata aren barri emon dautso Mireni.
Amak kontala, Mirenek «aaa» antzi egiten dau.
—Zeruko Amak ere Miren dauka izena, laztana —di-
ñotso ama Idoiak.
—Aaa! —antzi egiten dau Mirenek, irudiari begira.





20.—Ama Birgiñaren nekeak

«Birgiña Amaren biotzak
dauka ezpata zorrotza.
Jesus eutsoen
erail gaiztoek
odol eriotzaz.

Bai samin,
bai latza
Jesusen eriotza. (bis)

Gizon maltzurrek Jesusen
egirik jasan eziñez,
beso ta oiñez
untzatu euen
gurutz age baten.

Bai samin,
bai latza
Jesusen eriotza. (bis)

Besoak zabal-zabalik
age gaiñean ezarriz,
mailluaz goitik
eutsoen josi
Jesus egurrari.

Bai samin,
bai latza
Jesusen eriotza. (bis)

Ama Birgiñak dardaraz
maillukada aien bakoitzaz,
gugaitik euan
jasan orduan
gogo eriotza.

Bai samin,
bai latza
Jesusen eriotza. (bis)

Jesus egoen billosik
gurutz batetik zintzilik,
gure erruen
ordaiña euen
garbitu justiziz.

Bai samin,
bai latza
Jesusen eriotza. (bis)

Ama Birgiña ondoan
biotz auziaz egoan
Seme bateren
ordez geu seme
onartu ginduzan.

Bai samin,
bai latza
Jesusen eriotza. (bis)

21.—Bestelako kontakatillua


Illuntzean «sorpresa» andi bat ekarria dau etxera Joanes aitak. Kartonezko paketea ikusi eta «zer ete dauka barruan» galdetzen asi da Miren.

—Pintoren etxetxea izango da —esan dau Jabik.

—Ez, Pinto azten dago. Ez da sartuko laster orren barruan —esan dua Mirenek.

—Emen mundu guztia sartzen da —esan dau Joanes aitak.

Mundu guztia sartzen dala, entzun dauenean, lkertxo eta ama Idoia ere inguratu egin dira. Joanes aitak paketeari azala kendu orduko, «teleikuskiña! Teleikuskiña» zara ta egin daue danak.



Teleikuskiñak leio alakoa dauka alde batetik, kristal eta guzti. Joanes aitak eskaratzeko maai gaiñean ipiñi dau. Xomorroaren alako adar luzeak ezarri dautsoz gaiñean eta ari bat sartu elektrizidaderen zuloan. Orduan argiak bri-bri egin dau Teleikuskiñaren leiotik eta mundu guztia asi da bertatik igaroten: mendiak, ibaiak, abereak eta gizakiak...

Mendi eta ibaien zurrumurrua Basagotikoen antzekoa da. Abereen alfabeta Uriguenekoan bardiña da. Baiña gizakien izkera oso ez bardiña: erdera da.

—Au, au, au! —Pinto txakurrak protesta egin dau.

Ikertxo zearo arritu da. Bere adiñeko neskato bat erdera egiten ikusi dau. Ikertxok ama Idoiari eldu dautso magaletik. Bekoki illuna ipiñi dau. Amak ez bildurtzeko esan dautso.

Pinto ez da isiltzen.

—Ago isilik, txakurra! —asarre egin dautso ama Idoiak.

Pinto ui-uika alauriz bazterreratu da. Teleikuskin orrek kendu dautso berari etxekoan beiramen guztia. Pinto

bekaitzez dago,
kontaktatillu barri
orren aurka.



22.—Teleikuskiñaren ipuiñak

Astea igaro eta zapatua eldu da Mendiatarrenean, Barrenkalen.

—Ama, gaur Teleikuskiña ikusten geldituko gara —esan dautsoe Jabik eta Mirenek ama Idoiari.

—Ez dogu Amumarenera joan bear ala? —erantzun dautse ama Idoiak.

—Ipuinlandia galduko dogu baiña —Jabi eta Miren eskaratzeko aulkiari elduta gelditu dira.

Teleikuskiñak amuma berak baiño obeto daki ipuiñak kontaten. Ikertxok ere begi-belarriz jarraitzen dauz Otsokoren eta Lukitxoren gaiztokeriak.

Mirenek bere muñekatxoari zilborrean bultz egin, eta muñekatxoa negarrez asten da. Jabik Teleikuskiñari botoian bultz egin eta ipuin urtika asten da.

Etxean bakerik egingo bada, kontakatilluri arrazoia emon bear yako: Ipuinlandia, Kontalandia eta Katillandia eta andana...

—Au, au, au! —Pintok protesta egin dau, kanpotarren otsa etxean entzun dauenean.

—Isilik, txakurra! —agirika egin dautso Jabik.

—Isilik gero, Pintotxo! —eskuaz zemai egin dautso Mirenek.

Pinto leenengo Mirenen belaunetatik, gero Jabirenetatik laztangale ibilli da une batez. Ez dautsoe egiten jaramonik. Biak dagoz, Jabi eta Miren, begiak bri-bri Teleikuskiñarik josita.




Pinto aspertzen da. Tamalez, «uui-uuii» alauriz, maaipean etxun da. Kontakatilluren durundia noiz amaituko begira dago.

Ze ipuin tokaten da gaur? Txarritxoena? Azerkorena? Iru epotxena? Ez galdetu Pintori. Pinto lotxoia egiten dago, burua aurreko ointxoien gainean.

Kontakatilluren durundia amaitu danean, Pintok aia zabalka, arrauzi andia egin dau, «auxe da nere ordua» esan dau txakurren berbetaz.

—Oi, gure Pintok ez dau ulertzen ipuiñik —esan dau Mirenek.

—Erderarik ez daki eta... —erantzun dautso Jabik.



23.—Pintoren asarrea

Teleikuskiña etxean sartu danetik, Pintok Mendiatarren ganora apur bat lurretik ikusten dau.

Ikertxoren galtza zuri bustiak lexibagailluaren ondoan lurrean ikusi dauz. Pintok ortzetan artu eta gela illunera eroan dauz.

—Ikusi dozuez Ikertxoren praka zuriak? —galdetzen dau ama Idoiak gero.

Pintok Mirenen muñeka maiza eskaratzeko maaipean ikusi dau. Gonatxotik dandarrez Pintok bere etzangora eroan dau.

—Non dago nire muñeka zaarra? —deiadar egin dau Mirenek.

Gauetz ere Pintok sukaldetik, eskaratzetik osteratxo bat egin dau. Ea dana txukun ete dagoen, begira dabil. Etxean danak dagoz lotan. Jabiren gelako atea irekita dagoz. Pintok ikustalditxo egin dautsoe, zaratarik atera barik.

Jabiren eta Mirenen oe aurrean zapata eta galtzerdiak lurrean ikusi dauz. Pintok lau iragotaldiz dana garbitu dau.

Urrengo goizean, ama Idoiak eskolarako dei egin dau.



—Ama, non dagoz nire zapatak? —galdegin dau Jabik.
—Ama, non dagoz nire galtzerdiak? —itandu dau Mirenek.

Idoia ama arriturik gelditu da. Umeen barrabaskeria ete zan, eskolara ez joatearren? Ze lapur edo sorgin ete dabil etxean? Jabi eta Miren jaieguneko zapata eta galtzerdiakin joan dira eskolara.

Gerotxoago Pinto etorri da sukaldera. Buztanari eraginka gozaria eskatzen dau, Idoia ama begira-begira egon jako une batez.

—Zeu izan ete zara gero, gure lapurra? —esan dautso.

Gela illunera joan eta antxe idoro dauz Idoia amak Ikertxoren galtza zuriak, Mirenen muñaka maiza, Jabi eta Mirenen zapata eta galtzerdiak eta ama Idoia beraren sedazko galtzerdiak...



24.—Pintoren leenengo erderakadak

Dana jakin da bazkal orduan: «Un perro, llamado Pinto, autor de varios robos a domicilio» esan dau eguerdiko Telejarioak.

—Ah! Malo, malo! Te vamos a meter en la cárcel!

—agirika egin dautso Mirenek Pintori.

—A la cárcel! —deiar dar egin dau lkertxok ere, Pintori buztanetik tiraka.

—Ze berbeta da ori, Miren! —bekaiñez begiratu dautso ama Idoiak Mireni.

—Pintori erdera erakutsi gurarik dabil, ama —Jabik Miren salatu dau.

—Erdera merdara, talo beroa tripera, gure aitak esaten euan antzera! —esan dau Idoia amak.

Jabi isilik gelditu da. Bein baiño geiagoten susmatu izan dauz ama Idoiak erdera izketan Miren eta biak eskaratzean.

—Teleikuskiñaren ipuiñak kontetan egon gara baiña

—zuritzen zan Miren.

—Testo oneik erderaz dagoz baiña —argitzen eutson Jabik.


—Etxean euskera esan dautzuet!

—agintezen euan ama Idoiak.



Mirenek asko maite dau ama Idoia eta bardin Jabik. Amaren esana egiteko, beti prestatzen dira biak. Baiña ez dakie zelan, amaren ostetik, barra-barra erderak urteten dautsoe Jabiri eta Mireni. Ikertxo begira-begira eta adi-adi egoten jake orduan.

Mendiatarren sukaldean euskera egiten da oraindiño. Ama Idoiaren begiradak eta batez ere Joanes aitaren bekaiñak asko esan gura dau. Eta euskera etxeko, beinipein Mendiatarren sendiko, izkuntza da.



25.—Iru txarritxuen ipuiña

Arratsaldeko seirak dira. Jabi eta Miren arrapalada baten etorri dira etxera.

—Arin zatoze gaur, umeok —esan dautse ama Idoiak.

Jabi eta Miren, amari erantzun barik, maai gaiñeko azkariari jara emon barik, Teleikuskiñari botoia sakatu eta aren aurrean jazarri dira. Ikertxo ere ondoan jazarri da.

—Zer dagizue azkaria jan barik? —esan dautse ama Idoiak.

—Ipuinlandia da, ama —erantzun dautso Mirenek.



Jabik eta Mirenek piano baten otsa entzun daue eta Teleikuskiñetik begia kendu barik aginkada bat emoten dautsoe noizbeinka ogi zatiari. Leio argitsuan iru txarritxo dagoz pianoa jotén...

Iru txarritxoén koplak

Lodi-lodiak
gurrin-gurrin
sei eskutara
txari orik
soiñutzen euen.


Bein txarritxuek
gurrin-gurrin
pianojotén
alai pozik,
festan ebizen.

Eskuak oiñak
gurrin-gurrin,
tekleak ordez
baltzak zuri
biurtzen ziren.

Musika ona
gurrin-gurrin,
otsokotxoak
ez urruti
konbite euken.

Atean «tan-tan»
gurrin-gurrin
eta agurrak,
adur dizdiz,
ortzak argitzen.

Musika onaz
gurrin-gurrin
otsokotxoak
bai poliki
afaldu euen.



26.—Baserriko Teleikuskiña

Urrengo asteburuan ere Mendiatarak ez dira joan Amumanera. Jabi, Miren eta Ikertxo Ipuinlandia ikusten gelditu dira Barrenkalen.

Urigueneko Amuma larri dago, «zer gertatzen ete jake gure bilobatxoeri gurera ez etorteko» esaten dau.
—Telebisiñoa erosi daue eta bera ikusten gelditu dira
—azaldu dautso lñaki bilobak.

Amumak ez daki zer dan Teleikuskiña. lñakik Barrenkalen ikusita daki eta Amumari azaltzen dautso:

—Ara; an katuak eta txakurrak berba egin ezeze, auzi eta erpeka ere egiten daue...
—Ai, katua beti katu eta txakurrak beti ortozik...
—erantzun dautso Amumak lñakiri.

Dana dala, Amuma prest dago dalako tresna ori eros-teko, kaleko bilobatxoak, Jabi eta, erakarteko bada. Jabik-eta baietz esan dautsoe ama ldoiari, Uriguenera joateko gertu dagozela, Ipuinlandia ez galtzekotan.

Uriguenen andiki baten tratua emon dautsoe Teleikuskiñari erosi dauenean. Bere gurdi-txoan darabille gela batetik bestera. Gela bat apaindu daue beretzako.




—Ez daigun eskaratza zaarrean sartu —esan dau Mari izekoak—. Beekosuan autsak zikindu egingo dau.

Ipuinlandiaren ordua da eta kaletar eta baserritar Uri-
guenen alkartu dira eskaratz barrian Teleikuskin barria
leenengoz ikusteko. Amumak ez dau gura izan eska-
ratz barria aipatzerik. Bera pozago gelditu da beeko-
sua zaintzen eskaratz zaarrean.

«Bri-bri» egin dau Teleikuskiñak argia emon dautsoe-
nean eta barra-barra ipuiñak kontetan asi da.

—Ene! Urigueneko Teleikuskiñak ez daki euskeraz
—arritu da Miren.



27.—Amumaren logurea

Ipuinlandia amaitu danean, Miren eskaratz zaarrera joan da. An aurkitu dau Amuma bakarrik eta suari begira.

—Amuma, no sabes erdera, verdad? —esan dautso Mirenek Amumari, buruari eragiñaz.

—Zatoz, laztana, gozo bat dauka zuretzat Amumak eta —erantzun dautso Amumak.

Miren arapaladan joan da atartera, «ez daki! Ez daki» daneri esaten. «Onak gagoz» pentsaten gelditu da Amuma. Ez ba; ez dago bera, plazara joaten zaneko eran. Orduan ba ekizan Amumak erderakada batzuk.





Orain larogei urte daukaz ia-ia. Erdera ikasten asi bearrak ozkirria emoten dautso lepazurrean.

Amuma suari begira gelditu da luzaroan. Bilobatxoak, Jabi-eta, ez dira etorri beeko suaren epelera, neguan legez.

Amumak bere eskolea amaitu dala esaten dau, eskaratz barriko «bestea» asi danetik. Eta bere ipuiñak bilobatxoak inguruan batzeko ezpadira, bera joango dala zeruko Aitaren ipuiñak entzutera, esaten dau.

Ezin dau kendu biotzean daukan amorru txiki bat. «Eskaratz barrian sartu dan sorgin orrek daukaz erru guztiak» —salatzen dau— berak kendu daustaz bilobatxoak eta ia ez naue maite.»

Amuma logure andi batek artu dau aspaldion.

28.—Pintoren igesa

Ama Idoia erosketak egin eta plazatik dator. Ikertxok iriki dautso atea.

—Non dago Pinto? —bere faltea somatu dau ama Idoiak, ongietorria egiten ez jako etorri eta—. Ikusi dozu gure txakurra, laztana?

—No... —erantzun dautso Ikertxok.

—Ikusi dozue gure txakurra? —galdetu dautse Jabiri eta Mireni, eskolatik etorri direnean.

Jabi eta Miren arri eta zur gelditu dira. Beingoan mogi-du dira Pintoren billa. «Gure txakurra falta da», «ikusi dozue gure txakurra» esaten ibilli dira bestaldeko ate guztietan. Bestaldekoak sorbaldak jaso dauez.

—Zuen txakur izpi baltzduna? Ez! Ez dogu ikusi —erantzun dautsee bestaldeko euskaldunek.

—Que qué dicen? —erantzun dautsee bestaldeko erdardunek.

Jabi eta Miren Barrenkaleko Ertzaiñagana joan dira, kontuak eskatzen.

—Ikusi dozu arako eskeko mozkorra? Berak ostu dausku Pinto gure txakurra —salatu dau Mirenek.

—No! —erantzun dautso Ertzaiñak, biboteak okertu dauz eta eskua jaso berebillei bide emoteko.



Jabik eskutik artu dau Miren eta etxerantza abiatu dira. Jateko ordua da.

—Orrek ez daki euskerarik eta goazen —esan dautso Jabik Mireni.

—Erderaz galdetuko dautsogu urrengoan —agindu dautso Mirenek Jabiri.

Miren samíñez eldu da etxera, «ez dogu ikusi Pinto» esaten. «Ostu egin ete dauskue ala alde egin ete dau?» galdetzen dau Mirenek. Pintok ba ekian bere igeska-txoak egiten, danen lagun egiten zan eta... — Asarratu egin ete da nigaz, erdereaa dala eta» ezbaian gelditu da Miren.



29.—Pintoren lorratzetan

«Se ha perdido un perro pinto (perdón), el perro Pinto. Es Pinto porque tiene pintas negras. Se gratificará...» andana bota dau eguerdiko Telejarioak.

Ori entzutean, Jabi eta Miren ere zerbait egitera adoretu dira. Ez sariagaitik, Pinto gura dauelako baiño.

«Has visto...?» —galdetu dautsoe Barrenkaleko Ertzaiñari, eskolatik etxerakoan.

Ertzaiñak sorbaldak jaso dauz, «piii» txistua jo dautso arrapaladan joan dan berebillari.

—Geuk egingo dogu polizi lana —esan dautso Jabik Mireni. —Nik pistola bat erosiko dot eta zuk detektibearen izpillu biribilla.

Arratsaldetan, eskolako lanak amaitu eta gero, Jabi eta Miren Parketik eta Zumarditik ibiltzen dira Pintoren lorratzetan. Miren sudurrak izpillu biribillean sartuta doa batzutan. Txakur batzuk ikusi dauz zugaitz ostean bere lantxoak-eta egiten edo bedartzan garagarra. Baiña Pinto alako izpidunik ez dau ikusi.



—Nik ezin dot geiago izpillu onekin. Mareatuta nago!
—eten da Miren, lurrean jesarri da.

—Orduan neuk eroango dot zati baten izpillua eta zuk pistolea eroango dozu —erabagi dau Jabik, nekeak banatzearren.

Pistoleak bost metrorañoko tiroa jaurtiten dau: moille otsa eta plastikozko balea «pumba». Batek jaurti eta besteak balea jaso. Bestela tirogaiak amaituko litzaketzan beingoan.




30.—Jo ta ots

—Ez dogu ezer aurkitu —esan daue Jabik eta Mirenek, etxera etorri direnean.


Arma jaurti dauez lurrera etsipenez beterik: Mirenek detektibe izpillua eta Jabik molledun pistola. Ikertxo aurreratu eta Jabiren pistolearekin jolaskerietan asi da «ta-ta-ta» ots egiñaz.

«Ta-ta-ta,
pistola traukilla,
tra-tra-tra,
metrailla,
jo ta ots,
aparta daiala.

Bum-bum-bum,
bonbaren kataplun.
Pin-pan-pun
baladun.
Jo ta ots,
norbait da iltamu.



Fi-fi-fi,
tiroak irrintzi,
din-don-din
il zori,
jo ta ots,
bizi naiz ala il.»



31.—Kilker landan

Miren nekatu egin da Pintoren lorratzetan usnaka. De-
tektibe izpilluak mareatu egiten dau. Erreago litzaken
Lindari beste txakur kume bat eskatzea.

Urrengo sapatuan, Mendiatarrak Amumarenera eldu
direnean, Miren Linda ikuskatzen joan da. Triste aur-
kitu da txakur amea, kuma guztiak saldu dutsoezelako.



—Goazen kilkerretan! —deiar dar egin dautse lñaki le-
engusuak Jabiri eta Mireni. lñakik pote bat ur daroa
aldean. Eguzkia gigan dago Urigueneko landetan eta
kilker kanta dator aizearen egoetan. lñakik bedar ziri-
txo bat artu eta isilik egoteko, «ixi» agindu dautse
Jabiri eta Mireni.

lñaki oin puntetan ibiltzen asi da, zaratarik ez egiteko.
An da emen kilkerak eurak ere «ixi» egin eta sixiltzen
doaz. Baiña kilker batzuk amorratu, «txir-txir-txir» kan-
tuan jarraitzen daue. lñakik begiz jo dauz eta zuloan
sartzen ikusi.

—Au jausi da —esan dau.

Bedar ziritxoaz zulo barruan zirikatzen dau kilkerra.
Laster dator kilkerra lñakiren eskuetara. Bat falta da
irurak kilker bana eukiteko. Irugarrenak ez dau urten
gura izan zulotik bedar ziritxoaren kilikiliaz. lñakik or-
duan ur potea iduli dautso zulo
gaiñera. Kirkillak ugerka urten
dau eta «dapa» eskua bota
dautso lñakik.

lñakik eta kilker zopa loreak
batu dauez egunetarako kilke-
rrei jaten emoteko.



32.—Kilkerren mozkorra

Kilkerrak larrean legez kantetan jarrai daue Mirenen eskuetan.

Ikusi nire kilkertxo! Egoak zorrozten dago —arrita da Miren.


lñaki leengusuaren kilkerak besteak baiño geiago irau dau kantetan. Ostaz lorik egin daue Amumaneko umeen gelan, kilkeraren kantua dala eta.

—Ire kilkerra arra izango dok eta... —susmatu dau Jabik.

—Irrak dozak arrak izatez. Ez dautsek iruna buztan ikusten bakotxari? —erantzun dautso Jabik eta belarriara isilleko bat...

—A! Ardao zopak emon dautsozak! Neu egon nauk ba!...





Kilker koplak

«Kilkertxo
txir-txir-txir,
kitar joten
non abil?
Ator gurera
zopak jatera,
kitara jo egik.

Kilker-kilker
kri-kri-kri,
arpa joten
eu mutil,
zopak ardotan
ardo gozotan
nai badozak busti.

Gure etxean
bai pozik
kilkertxo
fin dabil,
txir-txir egunez
eta kri-kri gauez
ia zoraturik.

33.— Kilker miña

Ikertxori asko gustatzen jako kilker kantua.

—«Tai a mi» —agindu dautso Mireni.

—Ez! Euskeraz eskatzen ez badaustazu —bekaiña ipiñi dautso Mirenek.

Eztabaida andia sortu da Mendiatarrenean, kilkerrak direla eta. Kilkerrak bi dira eta Jabi eta Miren eta Ikertxo iru nebarreba. Eta Jabi ez dago bere eskubideak izteko ez eta Miren bere baldintzat jateko.

—«Emon neuri» esaten da, laztana —laguntzen dautso ama Idoiak Ikertxori.

—«A mí, a míiii!» —eskutxoei eraginka amorratzen da Ikertxo.

Idoia amak gozokiakin, sagarrakin, jostailuakin pruebak egin dauz. «Ekarri» esan umeak» lagundu gura dautso Mirenek ere. Dana alperrik. «Tai a mí, eta tai a mí» berean tinkatzen da Ikertxo.

—Noiztik da gure umearen erdera ori? —galdetu dau Joanes aitak arrituta.

—Ez dakit noiz aaztu jakon «ez» esaten, «no» esateko, edo «ekarri» esaten, «tai» esateko —argitu dautso ama Idoiak—. Beiña leen polito ekian euskeraz gure umeak.



Ezaugarri txartzat jo daue Ikertxoren atzerapide auxe eta medikuagana eroan daue.

—Noiztik dauka umeak seta au? —galdetu dau medikuak.

Ama Idoiak kilkerraren arako eztabaida azaldu dautso mediku jaunari:

—Kilkerra sartu jakon buruan eta kito!

—Kilkerra esan dozu? —medikuak Ikertxori jertzea jaso eta zilbor zuloan begitu dautso—. Ez da kilker miña. Emen ez da kilkerrik agertzen.



34.—Gau lapurrak

Auzoko andra zaartxoak lapur otsa sumatu dau bart eta Ertzaiñari salatu dautso susmoa. Goizaldean Ertzaiña Mendiatarrenera etorri da. Ama Idoia arritu egin da.

—Ara, emen txakur bat falta izan da egunotan eta neuk entzun dodaz bart lapurren zaratak —esaten jarrai dau auzoko andra zaartxoak—. Ez dozuez entzuten oraintxe ere? Non dagoz zuen Jabi eta Miren. Danon artean arrapauko doguz.



Idoia amak, auzoko andratxoa zorotzat ez emote-
arren, atea iriki dautso Ertzaiñari. Jabi eta Miren es-
kolatik dira, kilkerrak kantetan jarraitzen dau, Ikertxo
lotan dago, kilker amesetan...

—Emendik, emendik da zarata —auzoko andratxoak
aurretik daroa Ertzaiña, umeen gelara ain zuzen.
Umeen gela utsik dago.

—Ea, begitu oepean! —agintzen dautso auzoko an-
dratxoak Ertzaiñari.


—Emen ez dago iñor eta! —Ertzaiñak makur-makur
eginda begitu dau oepean.

—Eta zarta ori? —atzamarra jasoten dau andratxoak.

Orduan Idoia amak pote bi dakartsoz Ertzaiñari: Jabi-
ren eta Mirenen kilkerrak ziran.

—Baiña ez dozu, andratxo, egundo kilkerrik ikusi?
—asarre egin dautso Ertzaiñak auzoko andratxoari.

—Barrenkalen ez beintzat —zin egiten dautso andra-
txoak Ertzaiñari.




35.— Iker kilker

Ikertxok kilker zopak jastatu dauz bart eta kilker amesak darabiz orain. Ogia ardaotan ez bustitea euki dau. Eta Ikertxok busti eta jan egin dauz. Gero lotan dagoela, eldu dautso mamu batek, eldu, eta bera jan bearrez darabil. Jan ere egin dau, baiña amesetan.

Mekanikazko palaren agiñak daukaz mamuak. Gulpil orde z sei anka daukaz. Ez da beilegia, baltza baiño eta «grin-grin» agin karraska daroa, Ikertxoren azurak txikitu bearrez. Ogia ardaotan ez bustitea euki dau...

Kilker mekanoduna geroago eta andiago egiten da



eta Ikertxo bera geroago eta txikerrago. Mundua eta adiñak aldrebestu jakoz Ikertxori ardao zopatan.

—No! —deiadar egiten dau Ikertxok, baiña iñork ez dautso entzuten.

—«Grin-grin-grin» kate zarata eta agin otsa ateraten dau mamuak.

Ikertxo Jabiri deika ibilli da. Alako kilker bildurgarria lapiko andian sartu egiala... Jabik arnas zurrungaz erantzun dautso.

Goizean Ikertxo itzartu danean, oraindiño min emoten izan dautso kilker kantuak. Joan eta Jabiren eta Mirenen kilker poteak iduli dauz. Kilkerrak espetxea libre ikusi daue eta azpi zuloen billa ibilli dira iges egiteko...

—Nor ibilli da nire kilkerrakin? —asarratu da Jabi, eskolatik etortean.

—No! —erderakatu dau Ikertxok.

—Iker kilker! —izeka egin dautso Mirenek eta miiña altera—. Maketo!...




36.— Kilkerren ogia

Jabik opean aurkitu dau bere kilkerra. Buruaz opean jo eta izarrak ikusi dauz.

Miren zoko guztietan begira ibilli da, bere kilkerra ezin aurkiturik. Eskerrak kilkertxoak kuku egiten aspertu eta, kantetan asi jakola.

—A, gaizto ori! Or zagoz e? —poztu da Miren, kilkerra komodapean aurkitu dauanean.

—Ertzaiña etorri da eta kilkerrei ardao zoparik geiago ez emoteko agindu dau esan dautse ama Idoiak Jabiri eta Mireni.



—Eta nork zainduko dau gaez gure etxea? —erantzun dautso Jabik ama Idoiari.

—Ori! Ori! Gu danok lotan gagozela, eskeko mozko-rra etorriko da osterera ere —esan dau Mirenek.

Jabik eta Mirenek izpi lanean ipiñi dauez kilkerak, etxeakoak lotan dagozela, etxea zaindu dagien, lapur-
rak uxa dagiezan.

—Lapurrak ikusi dauzela, esan dau bestaldeko andratxoak —azaldu dautse ama Idoiak.

—Iker izan da lapurra! —salatu dau Mirenek.

—No! —erderatu dautso Ikertxok Mireni.

—Kilkerrik ez daukalako! —argitu dau Jabik.

Euskerarik ez dauelako egin gura —goraintzi dau Mirenek.

—Euskera esan dozue? Orixe bai! —asarratu da ama Idoia—. Umearen aurrean erderarik entzuten badautzu-
tzu, entzun, nik ez dakit zer egingo dautzuedan, umeok!...



37.—Axerkoren buztana

Ama Idoiaren asarrea ez da ibitu zati baten.

—Ale! Irakurri orain lkertxori ipuin bat. Nik ez daukat astirik Amumarenak kontatzeko eta... Nork irakurriko dautso? Baiña euskeraz e? —agindu dau ama Idoiak.

—Neuk, ama —aurreratu da Miren.

—Ik zer egin bear don, irakurten ez dakin eta... —sapuztu egin dau Jabik Miren.


—Ba dakit!

—Ez dakin.

—Ba dakit.

—Ez dakin.

—Ba dakit...





Nebarreben abotsak geroago eta fiñago doaz eta muzturak gero eta luzeago. Bata txistua eta bestea txirula dirudie.

—Ea zuk, Jabi! Ganoraz asten ez bazaree, ez dago ez Ipuinlandiarik eta Amumanera joaterik! —trumoi otsa atera dau ama Idoiak.

Arako zemaia entzutean, isildu dira Jabi eta Miren nebarrebak. Jabi ipuiña irakurten asi da aztiro-aztiro: «Otsoko eta Axerko.» Bein Otsoak eizean urten euan basora eta Axerko topau euan bidean.

—Zertan abil, atzitu ori, neure lurraldeetan? —esan eutson Otsokok Axerkori.


—Zer ba? Ez jak gogoko neure buztan luzea ala? —erantzun eutson Axerkok Otsokori.

Miren muturtxo egon ipuiñaren asieran, baiña Axerkoren buztana aipatu danean, adi-adi jaso dauz gogobelarriak, Axerkoren butzanaz zer jaso ete zan jakiteko.

Ikertxok ez dau ipuiña bat ere jarraitu. Jabiren pistolearekin jolasten ibilli da une guztian.

38.— Amumaren egada

Barri latz bat etorri da Uriguenetik. Ama Idoiak ator baltza jantzi dau eta Mirenek ama triste dagoela, igarri dautso.



—Amumari agur egiten joan bear dogu —esan dautso ama Idoiak.

Joanes aitak ere jake baltza jantzi dau, Jabik jertze illuna, Mirenek gona urdin baltzak, Ikertxok gaztainlegizko txamarrea. Taxia artu eta Uriguenera joan dira, Amumari zer jasoten jakon ikustera.

Amuma tximur-tximur egon da kutxa baltzean. Ama Idoiak mosua emon dautso eta Amumak zirkiñik ere ez dau egin. Ama Idoiari malkoak urten dautsez eta Mirenek eskutik oratu dautso amari. Jabi ez da aldendu Joanes aitaren ondotik. Ikertxo atzamarra aon sartuta egon da. Iñork ez dautso berari zaririk emon.

Basagoitiko kanpaiak jotzen asi dira. Joanes aitak, osaba Pedrok eta beste andariak sorbaldetan artu daue Amuma kutxa barruan.


—Il egin da amauma —esan dautso Mireni izeko Marik.

—Joan egin da —esan dautso osaba Pedrok.

—Zerura joan da —esan dautso ama Idoiak.

—Joan zan, joan zan —erantzuten dautsoe Basagoitiko kanpaiak.

Miren kanpaiak entzuten joan da eleizabide guztian, euren berbetea ulertu gurarik.



39.—Kanpaien illeta

Goazen, amatxu
Amumanera,
gaur joia dogu
an eta.

Joan da Amuma
goiko zerura,
t'Amumanea
altu da.

Eta joan zan, joan zan
angeruen egadan.

Eta neuretzat
Amumak eukan
sari gordea
nork dauka?

Zelan joango
Amumanera,
trenik arako
ez bada?

Sari guztiak
zerura doaz,
antxe gorde dauz
Jainkoak.

Egoak bear
eta angerua
joateko egaz
zerura.

Eta joan zan, joan zan
angeruen egadan

Eta joan zan, joan zan,
angeruen egadan.

Eta Amumak
ez dauz kontauko
arako ipuiñak
geiago?

Ipuiñak egi
biurtu iakoz,
Amuma bizi
bai dago.

Eta joan zan, joan zan
angeruen egadan.

40.—Pintoren mamuak

Aste bart igaro da Amuma zerura joan danetik. Jabik eta Mirenek Gureaita asko esan dauez Amumaren alde, Idoia amarekin.

—Ama, Pintogaitik ez da errezaten ezta? —galdetu dau Mirenek.

—Ez, abereekaitik ez don errezaten —erantzun dau tso ama Idoiak.

—Berbetan ez dakielako...

—Arimarik ez daukeelako.

—Ez, baiña Jabik eta biok txakurra topatearren da

—osotu dau Mirenek.

Ama Idoiak baietz esan dautse: obe dala Gureaita bat arako detektibe tresnak baiño. Jabik eta Mirenek lker-txori izten dautsoez geroztik jolasteko izpillu biribilla eta mollezko pistolea.

Ipuinlandian, Dumbo agertzen danean, «or gure Pinto» esaten dau Mirenek.

—Gure Pinto itxuraldatu daskue —erantzuten dau Jabik—. Eta aste bi baiño ez da, ostu daskuela...



Arratsaldean, eskolatik datozela, Gureaita esan eta beingoan, txakur bat ikusi daue Parkean.

—An gure Pinto —esan dau Mirenek.

Miren arrapaladan asi da txakurraren jarraian «Pinto!» «Pintotxu» deiadarka. Txakurrak ez dautso erantzun eta iges egin dautso.

—Ama, Pintoren antzeko txakur bat ikusi dogu Parkean —esan dautso Mirenek Idoia amari.

—Bero-bero! Jarrai orrela eta laster dozue ateetan —itxaropena luzatu dautse Idoia amak Jabiri eta Mireni.



41.—Polonio-ren zirkua

Urtero «Polonio zirkua» etorten da Urra. Euren gurdi eta zaldi, abere eta pizti, soñulari eta dantzariekin etorten dira errenkadan. Barrenkaleko umeak, erri askatzaillerei baizen, txaloak jotzen dautsez.

«Función especial de perros amaestrados en el "Circo Polonio"» dei egin dau eguerdiko Telejarioak. Jabi eta Miren eta Ikertxo eta ama Idoia ere jaialdira joateko dagoz, eta sarrerako txartelak artu dauz.



«Polonio zirkuan» elefanteak gustaten iakoz geien-geien Ikertxori, leoien ezitzaillea Jabiri eta neska zaldunak Mireni. Idoia ama Polonio berari begira gelditu da. Poloniok Ttakulin-en jantziekin urten dau.

Poloniok, edo Ttakuliñek, txakur taldea dakar bera-
goz, danak txintxildun. Polonio, txakur ezitzailleak, er-
deraz emoten dautsoz leziñoak txakur bakoitxari, mai-
suak eskolan legez:


«Toma aquí,
toma allá»,
ikasi
erdera,
txakurra.

«Listo, ven,
tente bien»,
ikasi

zutunik
egoten.

Zelan da
erderaz
«Au-au-au»?
«Esto» esan
gura dau.

«Bien, Listo»,
ederto.
«Estás ya»
zirkuan
«derecho»?



42.—Pintoren egerpena

—Ama, txakur ori ez da Listo. Ori Pinto gure txakurra da —ukondoaz joten dau Mirenek ama Idoia.

—Non ezagutzen don Pinto gure txakurra dala, eta ez Listo? —esan dautso ama Idoiak Mireni.

—Begitu egiozu ezpilli biribil onekin eta ondo ere ondo kusiko dozuz bere ogei izpitxoak.

—Deitu egion ia...

—Pinto! Pinto! —deiadarrez asi da Miren zirkuaren erdian.

Polonio maisua, betaurrekoak jaso eta ezertxo gerta ez bailitz, jokua egiten dautso salapenari:

«Pinto no,
Listo sí.
Sinisten
ez daunak
ikusi.



—Ori ondo ikusita dago! Neuk kontauta daukodaz orren izpitxo baltzak eta! —samea urratu bearrez, salatzen dau Mirenek.

Poloniok bere jairako egokitu gura dauz Mirenen deia-darrak, edozelan ere bere jaia biribiltzeko:

«Esan ba,
sin error,
Listoren
izpiak
cuántos son?»

—Ogei dira, ogei! —eztanda egin dau Mirenek.
Poloniok men egin eta txapela kendu dautso Mireni:

«Veinte son,
neskato,
Listori
ta zuri
txalo jo.»



43.—Pintoren erderea

Miren arrituta dago. Pintok, bere izenaz deitu eta, ez dautso erantzun. «Zer jaso ete iako Pintori, nik deitzean, buztena ez mugitzeko!» galdetzen dau Mirenek.

—Izena aaztuko iakon eta —oar egin dautso Jabik.

—Edo, euskera aaztuko jakon Pintori —susmo dau Mirenek.

Ama Idoiak, txakur ezitzaille ona izan bear dauela, diño, eta Miren aurrera doa bere susmoetan:



—Ama, zenbat denpora da Polonioren zirkua Urira etorri dala?

—Iru aste izango dira —erantzun dautso ama Idoiak—. Zer bada?

—Eta zenbat aste dira Pinto falta iakula?

—Laster iru aste izango dira...

—Orra ba! —Mirenek detektibe izpillua jaso dau—. Polonioren zirkua Barrenkaletik igaro zanean, antxe gengoan Jabi eta biok Pinto txakurragaz. Ez ala, Jabi?

—Bai, alan da —susmoan sartu da Jabi ere.

—Ertzaiñari esan bear dautsozue orduan —erabagi dau ama Idoiak—. Bera ardurata daitela.

—Geu joango gara, ama, Polonio orrengana —alkar artu daue Jabik eta Mirenek.

Miren eta Jabi joan bai, Polonioren zirkura joan dira. Ate aurrean dagoz, baiña ez dautse barrura sartzen izten. Pinto txakurra aipatu dautsoe atezaiñari. Atezaiñak katomtz ikaragarrien kaiolak erakusti dautsez, bildurrez atzerantz egin dagian. Jabi eta Miren ez dira orregaitik ikaratu. Eurena dana eskatzen jarraitu daue.



44.—Polonioren Txakurlandia

Pinto txakurraren arazoa Ertzaiñarengana eldu da. Miren eta Jabik, alkar artuta, Ertzaiñari salatu dautsoe.


—Gure Pinto Poloniok dauko bere zirkuan ezkutauta —esan dautso Jabik—. Poloniok ostu euskun Urira etorri zan aste berean.

—Eta Poloniok izena aldatu dautso eta erderaz erakutsi, gugaz aaztu daiten —zeaztu dautso Mirenek, izpitxoen barri emon dautso...

Ertzaiñak biboteak jaso, gerriko pistoleari oratu eta tiro bat jaurti dau aidean, lapurreri bildur emoteko.

Poloniok bere zirkuan ezelako tranparik ez egoela adierazteko, Txakurlandian atera dau —Teleikuskiñean ain zuzen— bere jaialdia. Illuntze berean ikusi daue uritar guztiak.

Arritzekoa izan da Mendiatarrenean bertan Pinto agertu danean! Baiña itxuraz zan! Pintok ez egiken entzun, deitu-arren. Ikertxok ez egikeon buztanetik tiratu, ez Mirenek laztandu, ez Jabik atzeko anken gainean zutundu.





Eta antxe egon Polonio bera ere Pintori erdal leziñoak emoten, «toma aquí, toma allá», Gaztelako txakurra bailitz eta ez Uriguenen jaioa. Polonio berari oratzen ba dautso, oratu, Jabik!...

—Non dagoz pistola onen balak? —galdetu dautso Ikertxori, amorrak artuta.

Ez da bala bat agertzen. Ikertxok, antza, leiotik beera bota dauz tiro guztiak, Jabi eskolatik dala. Bestelan Jabi Teleikuskiñaren leiotik jaurtiko eutsozan Poloniori eta bere arpegiko marro azala jaso.

—Ez dagoela tranparik? —burua mugitzen dau Mirenek, Pinto ikustean.

—Benetako balak erosiko dodaz —diño Jabi bere amorruan.




45.—Lindaren susmoak

Urrengo eguerdiko Telejarioak adarra jo euan barriro: «Supuesto perro secuestrado ha sido visto en el Circo Polonio...»

Ertzaiña Mendiatarrenera etorri da eta zeregiñik ez dagoela, esan dau. Euskeraz ondo dakienak euskeran aztertu dauela txakurra eta erdera bakarrik emoten dauela, esan dau. «Pinto» izenez deitu eta «Listo» izenez bakarrik erantzuten dauela.

—Eta Pintoren ogei izpitxo baltzak? —arrazoiak jaso dauz Mirenek.

Ori detektibe izpilluaz aurrez egiñiko tranpa litzakeela adierazi dau Ertzaiñak, eta txakur ori Poloniok bakarrik, edo bere amak, ezagutu leikeela...



—Bere amak, esan dozu? —argitu da Jabi—. Polonio-
ren amak ala txakurraren amak?

Txakurraren amak ezagutu leikeela Pinto, konturatu
direnean, «goazen Lindaren billa» esan dau Jabik.

—Ori! Ekarri daigun Linda Urira —txalo jo dau Mi-
renek.

Lindaren epaia ontzat emoten daue aurrez bai Ertzai-
ñak, bai Epailariak, bai izparringiek eta Telejarioak be-
rak: «Se somete al dictamen de la perra Linda, su-
puesta madre de Listo...»

Joanes aita Uriguenera joan da. Pedro osabea eta
Iñaki lobeia lagun
artu eta Linda eka-
rri daue. Linda,
Urian sartu dane-
ko, beingoan asi da
Barrenkaleko ega-
letan usnaka, Pin-
toren lorratzetan.



46.—Polonioren igesa

«Ezagutuko ez dau, ba, Lindak Pinto bere kumetxea?
—esaten daue danak.

—Bai eta Pintok bere ama Linda ere —eritsi dau Jabik—. Eta orrela etxera ekarriko dogu.

—Eta euskera erakutsiko dautsogu barrero —atzamarrara jaso dau Mirenek.

Goizetik danak doaz Polonio zirkura. Barrenkale egaletik igarotean, ango zugaitz bakarrari usnaka gelditu da Linda.


—Ikusi; antxe gelditzen zan Pinto ere; usna artu dautso —oartu dau Jabik.

—Orain ez daitela galdu, Pinto bera legez —kontu artu dau Mirenek.

lñaki leengusuak ugeletik oratu dautso Linda txakurrari, larregi aldendu ez daiten.

Barrenkale sarreran egoten da Ertzaiña, berebillei bide emoten. Joanes aitak billete orlegia erakutsi dautso, andik igarotean, eta Ertzaiñak biboteak mugidu dauz.

Gero Polonio zirkurantz abiatu dira danak. Joanes aitak atea jo dau eta Linda «auii» alaurika asi da. Ttakulin agertu da atean, txakur talde itzala eta euren txintxil otsa ingurutik daukala.



—Polonio? —zeruan ipiñi dau begirada Ttakuliñek—. Atzerrira joan barri da Listo bere txakur aukeratua-
rekin...


Alkarri begira gelditu dira Ertzaiña, Joanes aita, Pedro osaba, Jabi eta Miren nebarrebak, Iñaki leengusua eta Linda.

—Mogidu gaitzen! —ots egin dau Jabik eta Ertzaiñari—. Non daukazu polizi berebilla lapurrari jarraitzeko?

—A! —erantzun dautso Ertzaiñak aoa zabalik—. Neure tokian egon banintzan, Polonioren beribillari alto egingo neuntson!

—Ai ene! —pena artu dau Mirenek—. Neure detektibe izpillua ekarri banendun!...

—Jo! —amorratu da Jabi—. Neure pistola eta berunezko balak ekarri banenduzan!...



47.—Polonioren koplak

Idoia amak Teleikuskiñetik jakin dau Polonioren oste-rea. Laterrien arteko txakur txapelketara joan bear izan ei dau. Idoia amak ez dau sinistu alako guzurrik.

«Ez da ori egi!
Guzurra galanta,
Teleikuskin.»

Gero Polonioren kopla zaarrak gogoratu dauz ama Idoiak, Amumak kantatzen ekizan arara:



«Antonio Polonio
"pasó por aquí"
Pinto gure txakurtxoak
erdera daki.
Nork irakatsi?
Poloniok esanda,
berak ikasi.

Antonio Polonio
"pasó por aquí"
lapurretan eginda,
ez da agiri.
Eldu dautso, ai!
Pinto gure Pinto,
txakurtxuari.

Antonio Polonio
"pasó por aquí",
eskolako maisuak
euskera ez daki.
Eta zergaitik?
Euskera entzuterik
ez daulako nai.

Antonio Polonio
"pasó por aquí"
gure Ikertxok euskera
astu dau guztiz.
Zelan goraintzi?
Etxeko eskolaz
bearko asi.

Antonio Polonio
"pasó por aquí"
euskera zapustuta
joan da ortik
Obera berakin
eroan baleusku
erdera ori.



48.—Polonioren marroa

Miren leenengo «tranpa! Tranpa» deiadarrez eta gero negarrez asi da «gure Pintotxu, ai ene!»...

Joanes alitak isilik egoteko diñotso, Ttkuliñi beste txakur bat erosiko dautsola eta.

—Ez, nik Pinto gura dot —biurritu da Miren eta Ttakulin salatzen—. Eta Ttakulin ori Polonio bera da marro jantzian. Neuk ez dot ikusi ala detektibe izpilluaz zirkuant bertan?...

Barrenkaleko Ertzaiñak ezegoki aurkitzen dau bere txamarrea, estuegi sorbaldako ugelak eta alperrikoa gerrikoan pistolea. Berak atzerrian zeregiñik ez daukala, esan dau. Txakur bateren «sekuestroa» gaiñera txakur bateko auzia emongo leukeela auzitegian.

Beste azalpen batzuk emon dauz Ertzaiñak etxera bigean. Baiña dana dala, eta Barrenkaleko Ertzaiñaren eskubideak laburrak izanarren, gauzea aurrera eroan leikeela. Arrazoia eskutik eta Linda txakurra lekuko daukeela, Poloniok ezin egin leikeela luzaroko joko. Agaitik anka egin euala Uritik, Lindaren bildurrez. Eta txakurrari kontu egiteko, Polonio Lindaren atzetik ibilko zala eta...



Joanes aitak lñaki lobatxoari Ertzaiñaren azalpen guz-
tiak euskeratu dautsoz, Linda txakurraren ardurea
artu dagian.





49.—Ikertxoren bigarren barrabaskeria

Jabi, Miren, Ertzaiña eta besteak Pinto askatzeko bi-deak argitzen etorri dira etxera. Etxera, Mendiatarren etxera eltzean, itzalezko auzia aurkitu daue: Teleikuskiña itzik gabe, argi gabe eta arpegia zulotuta...

—Zelan egin dozu, umea? Idoia amak eperdia berotu dautso Ikertxori; emon-emonak egin dautsoz.

—Ez jo umea, amaxu! Ez jo umea, amaxu! —negar egiten dau Ikertxok.

—Ala! Ala! Ala!...

Idoia ama seigarren eperdikoan —edo konturatu da, Ikertxok euskeraz eskatzen eutsola, ez joteko.

Idoia amak zigorra beingoan aaztu eta pozez begiratu dautso Ikertxori. Eskaratzeko leio ideki eta auzokoei deiadarrez asi da:

—Entzun dozue? Gure umea euskeraz egiten asi da! Euskera egiten gure umea!...

Orduantxe eldu dira atarira Jabi, Miren, Ertzaiña eta besteak. Kristal apurtuak eta ama Idoiaren pozak ikusi dauez.

—Zer jasoten da emen? eskuak burura daroaz aita Joanesek, Teleikuskiña apurtua ikustean.

—Ala, laztana! Esaiozu aitaxori, zelan izan dan —euskerara oldartzen dau ama Idoiak Ikertxo.

Ikertxok bere bazterrean kuku egiten dau.

—Ez daust, bada, esan, ez joteko eta ez joteko, euskeraz atan ere! —azaldu dau Idoia amak.

—A! Orduan bearrezkoetan ba daki euskeraz e? —burua mugitzen dau Joanes aitak.

Ertzaiñak kanika alako balea atera dau Teleikuskiñaren urdailletik. Urrutizkiña artu eta «Berun 2» balak Teleikuskiña zulotu dauela, iragarri dau auzira.

50.—Teleikuskiñaren auzian

Eta orain
zer egin bear deunagu,
Teleikuskin?

Teleikuskin artoa,
kolorez, lorez
kendu dautson ik
gure txikiai abotsa.

Kontakatillu sorgiña,
lillura leraz,
beti erderaz,
euk jango eutson miiña.

Teleikuskin erdera,
moztu ta menduz
euk dautson kendu
gure mutillai euskera.




Kontakatillu gaiztoa,
ikus ta mikus,
sasi medikuz,
jo don lker begizkoaz.

Teleikuskin lapurra,
erdera purraz,
euskuera ukaz,
saldua don eusko lurra.

Teleikuskin ziria,
euk dauskun truka
sasi kulturaz
gure Amumären ipuiña.

Teleikuskin sorgiña,
Teleikuskin artoa,
eu az i erdera,
eu az i gaiztoa,
eu az i lapurra.
Euk don kolorez,
sasi-kulturaz,
lillura-leraz,
euk kendu-menduz,
ikus-ta mikus,
galdu lkerren euskera.
Polonio i
ta eu Ttakulin.
Zer egin bear deunagu,
Teleikuskin?



51.—Ikertxoren auzian

Auzilagunak Mendiatarrenean alkartu dira. Ertzaiñak Jabiren pistola jaso eta legezko pistola dala, esan dau. Baiña balea, kanika alakoa izan-arren, ez dala jolasetakoa. Berunezkoa zan eta... «Tira» esan dau Ertzaiñak.

Orixe. Matasea berez nastetan da, ariari tiratuz gero, eta gauzea auzi biurtzen. Eta orrela, Pintoren auzia argitu barik dagoela, Ikertxorena sortzen...

—Egia esan, alde batetik Teleikuskiña tresna bat da, auzi gizonak esan dauanez salatzen dau salatariak—.

Baiña bestalde, Teleikuskiña pertsona «moral» da...

—Emen ez dago iñoren erailketarik! —Ikertxoren alde urten dau ama Idoiak.



Ikertxo bere bazterrean dago, egokiro, aulkitxoan jazarrita, kuku begiak alde batera eta bestera, epaia zertan geldituko... Jabi eta Miren arri eta zur dagoz. —Emon dautsozue umeari berea? —galdetu dau epai-lariak.

—Bai, perdiko galantak artu dauz —zin egin dau ama Idoiak.

—Eta nork erosi dau bala ori? —ziria sartu dau ostera ere salatariak.

—Eta nork ostu dau Pinto gure txakurra? —berotu da Miren.

Gauzak ez nastatzeko, eskatu dau mesedez Ertzaiñak.

—Ez diñot erailketa bat dala —jarraitu dau salatariak—. Baiña ezin daiteke esan ere, erailketa asmorik ez dela egon...

—Ai ene! —larritu da ama Idoia—. Oraintxe izan bear! Gure umea euskeraz berba egiten asi danean!...



Auzilariei susmogarri egin iake Ikertxoren euskera zaletasuna.

Taleikuskiñari begiak konpondu eta Ikertxori kontu andia artzeko aginduz, urrengora arte joan dira. Iñaki leengusuak Linda txakurra ugeletik oratuta euki dau une guztian. Ez eitela auzia gerta, Linda «sekuestra-tzeko», beste tranpa bat...

ULERBIDEA SAKONTZEKO

(Aoz erantzuteko galderak)

1.—Mendiatarren sendia

- Nortzuk dira Mendiatarren sendikoak?
- Zenbat nebarreba dira?
- Nor da Idoia Arane?
- Zer egiten dago Jabi?

2.—Gorritxo mazurtaren ipuiña

- Zer irakurten dau Mirenek?
- Nor da «Gorritxo»?
- Zer galdetzen dautso maisuak Gorritxori?
- Ikasketa luzea euken mazustak?

3.—Joanes aitaren betaurrekoak

- Nor da Joanes?
- Zertarako bear dauz betaurrekoak?
- Mirenek zer egiten dau izparringiaz?
- Jabik zer diñotso Mireni?

4.—Betaurrekoen lillura

- Zertarako artzen dauz Mirenek betaurrekoak?
- Zer gertatu yako?
- Amak zer esan dautso?
- Jabik zer uste dau?

5.—Ordularia orpoetan

- Oetik arin jagiten ete dira Jabi eta Miren?
- Zer diñotse amak eskolara orduan?
- Ordulariak zelan abesten dau?
- Nork dantzatzen dau aren doiñura?

6.—Ikertxoren barrabaskeria

- Ikertxo gose ala egarri da?
- Nortzuk dira gose?
- Ikertxok ze gaiztakeri egiten dau?
- Zer diñotso amak?

7.—Kontakatillu eta erbia

- Nor da «Kontakatillu»?
- Nogaz dago berebetan Miren?
- Zelan egiten dau soloan erbiak?
- Zelan irakurten dau Jabik liburua?

8.—Ikertxoren lokamesak

- Zerk igon dautso burura Ikertxori?
- Nondik dabil amesetan?
- Nori deitzen dautso?
- Nondik jausi da?

9.—Ikertxoren angeru jagolea

- Nor jausi da abitik?
- Ze otoitz esaten dau ama Idoiak?
- Zer diñotse amak Jabiri eta Mireni?
- Ze otoitz dagie Jabik eta Mirenek?

10.—Uriguen baserria

- Non igaroten daue Jabik-eta asteburua?
- Amumarenea non dago?
- Zer egiten daue trenean Jabik-eta?
- Zer daroa Joanes aitak?

11.—Perla txakurra

- Zer diñotso Jabik Iñakiri?
- Nor da Iñaki?
- Zenbat kume daukaz Perlak?
- Zer eskatzen dau Mirenek?

12.—Katuaren promesak

- Nork kontetan dau ipuiña?
- Zer jasoten yakon katuari?
- Zer idoro daue bidean katuak eta akerrak?
- Zelan animatzen dau katuak akerra?

13.—Asto Txikiren ibillerak

- Nondik nora ibiltzen da asto Txiki?
- Zer daroa eta zer ekarten dau?
- Nor da Mari?
- Zelan diño asto Txikiren koplak?

14.—Basagoitiko kanpaiak

- Zelan janzten da Amuma eleizarako?
- Zer galdetzen dautso Mirenek izeko Mariri?
- Zer abesten daue Basagoitiko kanpaiak?
- Nork erasoten dau mezea?

15.—Pinto txakurra

- Zer dakar osaba Pedrok?
- Nork asmatu dau Pintoren izena?
- Norena da Pintotxu?
- Zer diñotso amak Mireni?

16.—Zenbat dira Pintoren izpiak

- Ze kolorezkoa da Pinto?
- Zer egiten dau Jabik?
- Zertan dabil Miren?
- Zer diñotso amak Mireni?

17.—Abereen arfabeta

- Udabarrian zelan dago Uriguene?
- Zertan dabil osaba Pedro?
- Zer gura dau Ikertxok?
- Abereen alfabetak zelan diño?

18.—Jabiren matematikak

- Zenbat pastel erosi dauz ama Idoiak?
- Noren eguna ospatzen daue?
- Zenbat pastel direla diño Jabi?
- Zer diñotso Joanes aitak?

19.—Mirenen bitxi biotza

- Nork emon dautso Mireni bitxi biotza?
- Zer eristen dau Jabik?
- Zeren antza artzen dautso Mirenek?
- Zer izen dauko zeruko Amak?

20.—Ama Birgiñaren nekeak

- Zer dauka Ama Birgiñaren biotzak?
- Zelakoa izan zan Jesusen eriotza?
- Zergaitik il euen Jesus?
- Ama Birgiña non egon orduan?

21.—Bestelako kontakatillu

- Barritsuari... deitzen yako.
- Ze erregalo ekarri euan Joanes aitak?
- Zertarako izaten da Teleikuskiña?
- Pintori atsegin yako Teleikuskiña?

22.—Teleikuskiñaren ipuiñak

- Zer da Ipuinlandia?
- Amumak zelan kontaktzen dauz ipuiñak?
- Pintok ulertzen ete dauz ipuiñak?
- Zergaitik ez dauz ulertzen?

23.—Pintoren asarrea

- Zer egin dautso Pintok Mirenen mukeñeari?
- Nora eroaten dauz Pintok zapiak-eta?
- Zer galdetzen dautse Jabik eta Mirenek amari?
- Zer diñotso Idoiak Pintori?

24.—Pintoren leenego erderakadak

- Telejarioak zelan egiten dau itz?
- Nork sartzen dauz erderakadak etxean?
- Zer diñotse amak Jabiri eta Mireni?
- Ikertxok ulertzen ete dau Teleikuskiña?

25.—Iru txarritxoen ipuiña

- Nortzuk dagoz Teleikuskiña ikusten?
- Zer diñotse amak?
- Nork jotzen dau pianoa?
- Esan ea txarritxoen kopla bat...

26.—Baserriko Teleikuskiña

- Zer diñotso Amumak Iñakiri?
- Zergaitik erosi daue Uriguenen Teleikuskiña?
- Non ipiñi daue?
- Zerk arritzen dau Miren?

27.—Amumaren logurea

- Non gelditu da Amuma bakarrik?
- Ulertzen ete dau Teleikuskiña?
- Zeren pena dauka Amumak?
- Noren erru izan da?

28.—Pintoren igesa?

- Zergaitik egin dau iges Pintok?
- Nork ostu dau Pintotxu?
- Zelak erantzuten dau Ikertxok?
- Ertzaiñak ba ete daki euskerarik?

29.—Pintoren lorratzetan

- Zer egiten dau Ertzaiñak?
- Zer diñotso Jabik Mireni?
- Zelako pistolea erosi dau Jabik?
- Zer daroa Mirenek?

30.—Jo ta ots

- Zer diñoe Jabik eta Mirenek?
- Zer egiten daue Jabik eta Mirenek?
- Ikertxo zertan dabil?
- Zerk egiten dau «fi-fi-fi!...»

31.—Kilker landan

- Zelan deitzen da bestelaz kilkerra?...
- Zelako otsa ateraten dau?
- Iñakik zelan arrapatzen dauz?
- Zelakoak dira kilker zopa loreak?

32.—Kilkerren mozkorra

- Zertaz arrigarritzen da Miren?
- Iñakiren kilkerak zergaitik da kantarien?
- Jo egizu kilker kopla bat.
- Nor da kitar jotzaillea?

33.—Kilker miña

- Zer diñotso Mirenek Ikertxori?
- Zer diñotso Idoia amak Ikertxori?
- Zertaz arritzen da Joanes aita?
- Zer diño medikuak?

34.—Gau lapurrak

- Nork salatzen dauz lapurrak?
- Ertzaiña non dabil lapur billa?
- Zer erakusten dautse Idoiak?
- Zer diñotso Ertzaiñak andra zaartxoari?

35.—Iker kilker

- Zer jan dau Ikertxok?
- Ze ames egin dau bart?
- Ze gaiztakeri egin dau gero Ikertxok?
- Zer esan dautso Mirenek Ikertxori?

36.—Kilkerren ogia

- Zelan aurkitu dau Mirenek bere kilkerra?
- Zer agindu euan Ertzaiñak?
- Zer egiten daue kilkerrek gauean?
- Zergaitik asarratzen da ama Idoia?

37.—Axezkoren buztana

- Zer agintzen dau ama Idoiak?
- Ze tema darabille Jabik eta Mirenek?
- Noiz gelditzen da adi-adi Miren?
- Zer egiten dau Ikertxok?

38.—Amumaren egada

- Zer barri dator Uriguenetik?
- Zer diño ama Idoiak?
- Zelan jantzirik egozen izekoa eta bestea?
- Zer esaten dautso izeko Marik Mireni?

39.—Kanpaien illeta

- Nor dabil amagaz berbetan?
- Zer erantzuten dau amak?
- Zer diño kanpaiek?
- Esan eizu bertso bat.

40.—Pintoren mamuak

- Noren alde erresetan daue Jabik eta Mirenek?
- Zer gura daue Jabik eta Mirenek?
- Non ikusten dauez Pintoren antzeko mamuak?
- Zer diñotse azkenean amak?

41.—Polonioren zirkua

- Nora etorten da Polonioren zirkua?
- Ze jaialdira doaz Idoia ama-eta?
- Poloniok ze berbakera darabil txakurrekin?
- Ea Polonioren kopia bat badakizu...

42.—Pintoren agerpena

- Zergaitik ezagutzen dau Mirenek Pinto?
- Zegaz begirutzen dau ama Idoiak?
- Zelan erantzuten dautso Poloniok Mireni?
- Zelakoak dira Polonioren bertsoak?

43.—Pintoren erdera

- Zergaitik ez dautso Pintok Mireni erantzuten?
- Nor ete da Pintoren lapurra?
- Zer erabagi daue Jabik eta Mirenek?
- Atezaiñak zer egin dautse Jabirik eta Mireni?

44.—Polonioren Txakurlandia

- Zer diñotso Mirenek Ertzaiñari?
- Nor agertzen da Teelikuskiñean?
- Zer galdetzen dautso Jabik Ikertxori?
- Zer egin euan Ikertxok balakin?

45.—Lindaren susmoak

- Telejarioak ze berbakera darabil?
- Nork ezagutu egiken Pinto?
- Nortzuk datoz Uriguenetik?
- Zer egiten dau Lindak Barrekalen?

46.—Polonioren igesa

- Zer esaten daue danak?
- Eta Mirenek zer diño?
- Nortzuk doaz Polonioren zirkura?
- Zer esan dautse Ttakuliñek?

47.—Polonioren koplak

- Ama Idoiak sinisten ete dautso Teleikuskiñari?
- Zelan asten dira Polonioren koplak?
- Nor da Polonio?
- Zer ostu dan Poloniok?

48.—Polonioren marroa

- Nork salatzen dau Polonio?
- Zer da txakur baten «sequestroa?»
- Ertzaiñak euskera ala erdera egiten dau?
- Nork daroa Lindaren ardurea?

49.—Ikertxoren bigarren barrabaskeria


- Zer jaso da Mendiatarren etxean?
- Zer egin dautso ama Idoiak Ikertxori?
- Zer esan dautso Ikertxok amari?
- Zer diño Joanes aitak?

50.—Teleikuskiñaren auzian

- Ikertxok zergaitik zulatu dau Teleikuskiña?
- Zelan asten da Teleikuskiñaren auzia?
- Nor da «kontakatillu sorgiña»?
- Nork ostu dautso Ikertxori euskera?


51.—Ikertxoren auzian

- Zelako balea eukan Jabiren pistoleak?
- Ikertxok iñor il ete dau?
- Zer diño salatariak?
- Zer egiten dau Iñakik bitartean?



- 1 1/2 1966

1966



.....
.....
.....
.....
.....

